

Haragiaren bueltako festa izango da Tolosan, hirugarrenez

Hilaren 19tik 22ra izango da; generoa, jatorria, kalitatea eta erretzeko teknikak izango dira aurtengo ardatzak // **4**

50 urte, euskara eta euskal kultura ardatz dituela

Elkar Fundazioaren jarduna ezagutarazi nahi dute urteurrenaren harira; 215 pertsonak egiten dute lan Adunako egoitzan // **2**

Lauburu Ibarrak Bigarren B mailan segiko du // **7**



Adunako Irizar e-mobility enpresako langileek atzo, lantegiaren kanpoaldean eginiko agerraldiaren une bat. ENERITZ MAIZ

Irizarko langileek manifestazioa deitu dute larunbaterako

Apirilaren 25ean ekin zioten Adunako lantegiko langileek greba mugagabeari eta zuzendaritzaren erantzunik ez dutela izan esan dute; Andoainen egingo dute protesta // **3**



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!

 **175.476€-tik hasita**



**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

50 urte euskal kulturagintza garatzen

Euskarari eta euskal kulturari emandako ikusgarritasuna nabarmendu dute; 215 pertsonak egiten dute lan Adunako egoitzan

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Aduna

50 urte bete ditu Elkar Fundazioak, eta urteurren borobila eta Adunako egoitza berria baliatu nahi ditu bere jarduna ahalik eta gehien ezagutarazteko. 2021ean kokatu zen Elkar Adunan, Unipapel enpresaren pabiloia erosi eta gero, eta egun, 215 pertsonak egiten dute lan bertan.

Joxemari Sors, Elkar Fundazioako lehendakariak taldearen sorrera eta garapena gogoratu ditu Ipar eta Hego Euskal Herrian emandako urratsen bidez, 60. hamarkadako bigarren zatian Joseba Jaka gaztea etxetik, gaur egun taldeak Euskal Herrian nahiz estatu mailan di-

tuen egiturak, lankidetzak, proiektuak eta erronkak barne. Ibilbidea ez dela samurra izan adierazi du: «Euskara eta euskal kultura ardatz izan dituen taldeak oinarri nagusietakoa izan du alderdi politiko guztietatik aske izatea, eta Euskal Herrian bizi izan den giro politiko eta soziala kontuan hartuta, oztopoak ugariak izan dira». Baina, une gozoak ere aipatu ditu, eta taldeak gizartetik jaso duen atxikimendu zabala nabarmendu du; «Elkar erreferente izan da euskara eta euskal kulturaren eremuan gizarte zabalarentzat, eta gizarteak behar zuenari erantzuten jakin du bere ibilbidean». Elkarren balore eta helburuen artean, elkar-lana errepikatu du fundazioko lehendakariak, eta bere egitekoa

aurrera eramateko «motor nagusietakoa» berrinbertsioa izan dela aipatu du: «Elkar ez zen sortu soilik talde indartsu bat egiteko, herrigintza sustatzeko sortu zen batik bat, euskal gizarteak lagundu, elikatu, garatu eta euskarari eta euskal kulturari ikusgarritasuna eta irismena emateko sortu zen. Hori izan da Elkarren ekarpen handiena eta hemendik aurrera ere oinarri horiekin lana egingo du».

Olatz Osa Elkar argitaletxeko zuzendariak bost hamarkadatan egiteko modua eta negozio ereduak «asko» aldatu dela eta egokitu beharra izan dutela azaldu du; «aldatu ez dena unean uneko gizartearen begiratu eta beharrak, erronkak eta auziak identifikatu eta horiei aurre egiteko bitartekoak eskura jartzea, kultur edukien bidez». Izan ere, Osak esan duenez, argitaletxearen jarduna «ekoizte hutsa baino harago doa; kultura ez baita entretenimen-

dua soilik, kultura norbanako eta komunitate kritikoagoak, askeagoak, prestatuagoak, hobeak lortzeko giltza da». Euskal kulturaren erronka handietako bat gizartearen kulturaren ahalduntzea dela esan du.

Mikel Esnal Elkar taldeko zuzendari kudeatzaileak taldeak erronka bikoitza duela esan du: «Batetik, euskara eta euskal kulturaren sustapena modu eraginkorrean bultzatzen jarraitu behar du, eta bestetik, enpresa den aldetik, aldatetara egokitzen asmatu behar du, horretarako estrategia zuzenak abian jarritz». Adunako azpiegitura berriari dagokionez, 12 milioi euroko inbertsioa egin da bertan. Orubeak 30.000 metro koadro ditu, eta bertan daude 15.000 metro koadroko biltegia eta bulegoak. 215 pertsonak egiten dute lan, %54 emakumezkoak eta %46 gizonenezkoak, eta hurrengo urteetan beste 20 lanpostu berri sortzeko

aukera emango duela aurreikusten dute. Bi milioi liburu daude biltegiatuta, eta beste milioi erdi ale papertegi eta jokoetan. Adunatik, urtean 9/10 milioi ale inguru zerbitzatzen dira.

50. urteurren dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Maiatzaren 26an, esaterako, Adunan bertan bi sari emango dituzte; Joseba Jaka beka aurten musika proiektuak laguntzeko deitu da eta Ines Osinagak jasoko du *Itsasoa da bide bakarra* izeneko musika proiektua lantzeko eta Ibilbideari elkar saria bi eragilek jasoko dute, Elhuyarrek eta UEUK, bi euskalgintzako erakunde horiek ere aurten 50 urte beteko dituztelarik.

Horrekin batera, eragile politiko, sozial eta kulturalak gonbidatuko dituzte urtean zehar Adunako egoitza ezagutzera, eta ate irekien egun bat ere egin asmo dute, Adunako herritarrei Elkar zer den erakusteko.



Mikel Esnal, Joxemari Sors eta Olatz Osa, Adunako Elkarrek duen egoitzan, atzo. I. TERRADILLOS

Espazio Lagunkoien topaketa, ostiralean

I. Terradillos Gaztañaga Tolosa

Tolosako ikasleek buru osasunaren inguruan ikasturtean zehar egindako lanketari amaiera emateko, Espazio Lagunkoien lehen topaketa egingo dute ostiralean, hilaren 13an Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastolan. Tolosaldeko Lanbide Heziketako hainbat ikastetxek hartuko dute parte eta egitarau berezia antolatu dute egun horretarako.

Tolosako Udala, hainbat eragilerekin batera, parte hartzen ari den Ez zaude bakarrik proiektuaren barruan kokatzen da ekimena. Ez zaude bakarrik proiektua pandemiak nerabeen buru osasunean izandako eragin ne-

gatiboaren ondorioz sortu da. Helburu nagusia da buru osasunaren zaintzan eta prebentzioan arreta jartzea, gazteen ongizatea bermatzeko.

«Gazteen beharrak ezagutu eta horiei entzutea lehentasunezkoa da, are gehiago egungo testuinguruan, non gizarte aldaketak sakonak gertatzen ari diren, digitalizazioa eta pandemia eta bere ondorioak tarteko», azpimarratu du Joseba Ormazabalak, Gazteria eta Komunitate eta Gobernantza sailerako zinegotziak.

Bada, Tolosako ikasleen beharrak aztertutik ondoren, Espazio Lagunkoien abiarazi ziren, osasun mentalari dagozkion arazo-

en prebentzioa egiteko xedearekin. Espazio Lagunkoietan osasun mentalaren inguruko gaiak lantzen dira, eta ikasleek euren emozioak eta kezak partekatze-ko espazio seguruak dira.

Bada, Espazio Lagunkoien lehen topaketa egingo dute, 10:00etan hasita. 10:15ean tailerrak izango dituzte. Ipuin kontaketa eta eskulanak, dantza eta yoga saioak, esperientzia tailerrak eta bertsolaritza saioa eta antzerki tailerra eta grafiti saioa. 11:45ean, berriz, Edurne Pasaban, Agustin Erkizia, Irantzu Tolosa eta Iratxe Etxenikeren hitzaldiak izango dira. Eta, amaitzeko, 12:30ean, kontzertua eta zumba saioa izango dute.



Joseba Ormazabal zinegotzia, Itxaso Urbieta eta Andoni Badiola Inmakuladako irakasleak eta Nerea Cereceda gazteria teknikaria. I. T.

Hitzarmen «duin» bat eskatu du papergintza sektoreak

ELA eta LAB sindikatuek deituta elkarretaratzea egin dute Tolosan papergintzaren hitzarmenaren harira

I. Terradillos Tolosa

Gipuzkoako papergintza sektorearen hitzarmena ari dira negoziatzuten urtariletik, eta Adegipatronalak mahai gainean duen proposamena «gutxiegi» iruditzen zaielako elkarretaratzea egin dute Tolosan ELA eta LAB sindikatuek deituta.

ELA sindikatuko Beñar Azaldegik esan duenez, sektorearen egoera ona da: «Azken hiru urteak lanari eta etekinari dagokionean oso onak izan dira, eta negoziatu nahi dugun hitzarmena horren ispilu izatea nahi dugu». Adegipen proposamena lau urterako hitzarmena dela adierazi du; «%6ko soldata igoera proposatzen dute, datozen urteetarako KPIaren arabera, Geroaren ekarpenetan 0,2ko igoera eskaini dute eta azken urteetan hain garrantzitsua izan den errelebu kontratua ezabatu nahi dute». Hori dela eta, proposamena «gutxiegi» iruditzen zaie.

LAB sindikatuko Joana Mendezek esan duenez, lau bilera egin dituzte patronalarekin eta irabaziak izan arren egin duten proposamenean gauza asko daukade hobetu daitezkeenak: «Papergintza sektoreko enpresek hori egiteko gaitasuna dute, eta eskatzen dugu eduki gehiago jartzeko mahai gainean eta benetako negoziazio bat hasteko». Aste honetan egingo dute bilera, eta patronalaren jarreraren arabera erabaki bat hartuko dute.

Zuzendaritza oraindik ez da jarri langileekin harremanetan

Irizar e-mobilityko langileek grebaren 15. egunean zuzendaritza «desagertuta» dagoela esan dute; larunbaterako manifestazioa deitu dute, Andoainen

Eneritz Maiz Etxarri Aduna

Adunako Irizar e-mobilityko langileek greba mugagabea hasi zuten apirilaren 25ean, eta gaurgaurko, zuzendaritza «desagertuta» dagoela dirudiela adierazi dute; «ez dugu jaso ez deirik, ez biltzeko proposamenik, ez ezer». Bada, manifestazioa egingo dute larunbatean, hilaren 14an, 17:30ean, Andoango goiko plazatik abiatuta, eta manifestazioarekin zuzendaritzari «pauso» eman dezala eskatuko diote.

«Merezi dugun enpresa ituna eskatzen dugu, gutxieneko lan baldintza batzuk bermatuko dituen», esan dute enpresa batzordeko kideek. Negoziazioa berrabiaraztea nahi dute; «bost baldintza kualitatibo eskatzen ditugu, puntu kuantitatiboak negoziatorako utziz». Baldintza zehatzak zerrendatu dituzte: «Irizar e-mobilityko kontratua dugun langileoi lan berdinatik soldata bera ordaintzea; lan irteretarako lan baldintzak duindu eta berdindu langile guztioi; egiten diren esfortzu gehigarriak konpentsatu; lana eta bizitza uztartzeko neurriak jartzea, bizitza pertsonala eta kontziliazioa bermatzeko, eta Gipuzkoako metalgintzako hitzarmena bere osotasunean betetzea».

Irizar e-mobility ez dela edozein enpresa esan dute enpresaren aurrean bildu diren langileek. «Frantziar estatuko lehen ekoizleak gara, eta Europar ekoizten diren hamar autobus elektrikoetatik bat gurea da». Etorkizunean «industriaren oi-



Langileek egoeraren eta mobilizazioen berri eman zuten, atzo, enpresaren aurrean egindako agerraldian. E. MAIZ

narri» izan nahi duen sektoreetako bat dela gaineratu dute, «hain beharrezkoa den trantsizio energetikoan gako».

«Hala aitortzen diote instituzioek, eta horregatik laguntza ugari jaso ditu», eman dute jakitera, eta galdera luzatu dute: «Etorkizuneko industria bigarren mailako lan baldintzetan oinarrituko al da?».

Bestalde, langileen joan-etorria «izugarria» dela diote: «Askok ez dute euren etorkizuna hemen ikusten eta alde egiten dute. Honek garbi islatzen du lan baldintzak nolakoak diren». Aldi berean, kontratazio berriak egiterakoan «arazoak» izan dituzte: «Horrela sortuko dugu industria lehiakorra, bigarren mailako lan baldintzekin?». Erakundeek ezin dutela «entzungor egin» aldarrikatu dute, eta enpresak la-

guntzen dituzten moduan, euren ardura ere badela enpresa horietan «lan baldintza duinak daudela egiaztatzea» exijitu dute. Hori horrela, erakundeei eskatu diete esku har dezaten: «mugarazi dezatela zuzendaritza eskatzen ditugun bost puntuak bermatuko dituen proposamen bat egitera».

«EZ DUGU ATZERA EGINGO»

Langileen ordezkariak adierazi dute «egoera irauli» egin behar dutela, eta horregatik ari direla borrokan. Hain justu, euren borrokari dagokionean, «adostasunak lortzearen alde» egiten dutela beti esan dute; «baina, egoera jasanezina bilakatu da». Hala, indartsu agertu dira hamabosgarren egunean, eta ez dutela atzera egingo esan dute: Irizarri exijitzen diogu gure baldintzak onar

ditzala, gatazka hau amaitu eta negoziazioekin jarraitzeko».

Larunbatean, 17:30ean egingo duten manifestazioaz gain, elkartasun kontzertuak izango dira Andoango gaztetxean, greban dauden langileen erresistentzia kutxarako dirua biltzeko. Herritar guztiei dei egin diete manifestazioan parte har dezaten; «eskerrak eman nahi dizkiegu guri babes» eman diguten eragile sozialei eta politikoei, azpimarratu dute. «Borroka hau etorkizuneko lanpostuen aldeko borroka da, herrialde oso baten borroka izan behar da, eta ez dugu zalantzarik lortuko dugula!».

Elkartasuna ere adierazi diete Berangoko Alconza Irizarren greban dauden lankideei, eta Irizarri eskatu diote 25 kaleratuak berriz har ditzala.

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm

Egin txotx atariarekin!

Atariako irakurleentzat Zabala Sagardotegiarekin elkarlanean, zozketa abian jarri du Ataria.



Parte hartzeko epea:
Maiatzaren 6tik 15era.

Saria:
Sagardotegi menua bi pertsonarentzat eta sagardo kaxa

Zozketako oinarriak
eta informazio guztia
Ataria.eus-en





Tolosako Zerkausi gainean aurkeztu zuten pasa den ostiralean, maiatzaren 19tik 22ra egingo den Haragi topaketa. J.A.D.

Bueltan da okelaren festa

Hilaren 19tik 22ra, Haragi topaketaren hirugarren edizioa ospatuko da; aipamen berezia egingo diete animalien ongizateari eta sektorearen jasangarritasunari

Josu Artutxa Dorronsoro

Aurtengoarekin, hirugarren aldiz ospatuko da Tolosan Haragi, Txingarraren eta Haragiaren Nazioarteko Topaketa. Maiatzaren 19tik 22ra bitarte izango da haragia maite dutenentzako jaialdia. Generoa, jatorria, kalitatea eta erretzeko teknikak izango dira aurtengo ardatz nagusiak, eta aipamen berezia egingo zaie animalien ongizateari eta sektorearen jasangarritasunari. Herrialde desberdinetatik etorriko diren 30 profesional eta aditu bilduko ditu aurtengo edizioak.

Maiatzaren 19an emango diote hasiera Haragi topaketari. Kongresu bat egingo dute Donostiako Basque Culinary Center gastronomi fakultatean. Profesionalei zuzendutako saioa izango da, eta puntako hizlariak hartuko dute parte. Estatuko nahiz

mundu mailako aditu eta sukaldariek gain, bertako gastronomiaren ordezkariak ere parte hartuko dute ekitaldian: Tolosako erretegiatiko parrilleroez gain, Alejandro Goya eta Carnicas Goya harategietako ordezkariak, Ama tabernako Gorka Rico eta Javi Rivero eta Amasako Hika txakolindegiko Roberto Ruiz bertan izango dira.

FOODTRUCK GUNEA

Maiatzaren 20tik aurrera, esperientziak bizitzeko txanda izango da Tolosan. Herritarrei eskainitako programazioa prestatu dute, aurreko edizioetan egin izan den bezala. Hirugarren edizioa, baina, berrikuntzekin eta jaialdi formatuan dator, ekitaldia bera eta gastronomia belarri berriei hurbiltzeko helburuarekin. Aurtengo berrikuntza nagusia Haragi Fest ekitaldia da.

Zumarditxikian izango da: bertan Foodtruck gunea kokatuko dute asteburu osoan zehar, eta tartean, autobus bat ere egongo da. Maiatzaren 20ean gainera, 13:00etan, sektoreko profesionalentzako bisita gidatua egingo dute, Hika txakolindegian eta 18:00etan, berriz, hasiera emango diote Haragi Fest ekitaldiari, zuzeneko musikarekin.

Larunbatean, 12:00etatik aurrera, mahaiaren bueltan dastatze desberdinez gozatzeko aukera izango da Haragi Fest gunean eta parrilla inklinatuaren teknika ikasteko espazio bat ere izango da, Sua izenekoa, Tolosako parrilleroen eskutik. Kozinatutakoa ere dastatu ahal izango da gero. Igandean emango diote amaiera aurtengo edizioari; 12:00etatik 16:00etara zabalik egongo da Haragi Fest gunea, eta 13:30ean hasita, Haragi menua

dastatzeko aukera izango da Tolosako erretegiatan.

«Txuleta festaren gisa hasi zena nazioarteko topaketa bihurtu da, haragiaren festa izatetik haragiaren hiriburu izatera igaro da Tolosa, eta arrakasta izan du, festaren izaera herrikoiatatik ez ezik, herriko eragile sozialen inplikazio eta laguntzagarritatik: erretegiak, elkarte gastronomikoak, sukaldariak, haragi-sektorea... horiek gabe Haragi ez litzateke posible izango», esan du Olatz Peon Tolosako alkateak.

Eusko Jaurlaritzako Kalitate eta Elikagaien Industriako zuzendari Raul Perez Iratxetak haragiaren garrantzia nabarmendu du, bere aldetik: «Euskadiko gastronomiaren bereizgarrieta bat da, baita gure abeltzaintza-sektorearen ezaugarri nagusienetako bat ere. Elikagai osa-

EGITARAUA

Maiatzak 19, osteguna

09:15.-14:00 Haragi kongresua Basque Culinary Centerren.

Maiatzak 20, ostirala

13:00. Gure lurraldea dastatzen ekimena, Hika txakolindegian.
18:00-00:00. Haragi Fest ekitaldia, Zumarditxikian. FoodTruck gunea: Ama, Goya, Barriola, Ekotolo eta Basquetruck.
19:00. Musika zuzenean: Mambo Fango vs. Global Funk DJak.

Maiatzak 21, larunbata

11:00. Haragia erretzeko tekniken erakustaldia, Trianguloa plazan. Ondoren, erreki horiek dastatzeko aukera egongo da.
10:30. Sua espazioa, Trianguloa plazan. Tolosako txuleta tradizionala erretzeko teknika ikasteko esperientzia gastronomikoa, bertako parrilleroen eskutik. Ondoren, dastatzea.
12:00-00:00. Haragi Fest, Zumarditxikian. FoodTruck gunea; 12:00etan Deñe-ren kontzertua; 15:00etan Filipe Bittencourt, 20:00etan Mugan eta 22:00etan Moonshine Wagon.

Maiatzak 22, igandea

12:00-16:00. Haragi Fest, Zumarditxikian. FoodTruck gunea; 12:00etan DJ Makala.
13:30. Haragi menua erretegiatan.

sungarriak modu iraunkorrean ekoizten dituen sektorea da, familia-nekazaritza ereduak, eta lurraldearen ingurumen-kudeaketa eta ekoizpen- eta paisaia-aniztasunaren zaintza errazten duena».

Ekitaldiaren gune guztiak irekiak izango dira eta jakiak edo edariak hartzeko txartelak lekuan bertan erosi beharko dira. Sua Espaziora joateko soilik erosi beharko da sarrera aurrez, eta Basque Culinary Centerreko kongresura joan nahi duenak ere izena eman beharko du *Haragi.eus* webgunean.

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN URTEKO BILKURA NAGUSIA

OHIKO BATZAR NAGUSIKO GAI-ZERREDA

1. 2021eko memoriaren eta balantzearen onarpena.
2. Elkartaren 2022-2026 egitasmoaren aurkezpena.
3. 2022ko egitasmoaren eta aurrekontuaren onarpena.
4. Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena eta onarpena.
5. Galderak eta eskaerak.
5. Inaki Iurrebaso soziologoaren hitzaldi laburra: Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera Euskal Herrian gaur: zer diote datuek?



Eguna: 2022ko maiatzaren 11, asteazkena.

Ordua: 18:00.

Tokia: Inaxio Begiristain kultur etxea, Alegia.

Kike Amonarriz Gorria,

Galtzaundi Euskara Taldeko lehendakaria
Tolosan, 2022ko maiatza



zozketak



Atarikideentzat
liburu bat dugu

Nerea Loiolaren
Azken Lanhutarra

Parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



AKEZKOERROTARA BISITA

Maiatza Saltsan ekimenaren barruan, eta igandeko Gipuzkoako Erroten Egunari lotuta, herritarrek Zizurkilgo errota osatu bakarria ikusteko aukera izan zuten larunbatean. R.C.G.



SANTAKRUTZAK OSPATZEN

Santa Krutz jaiak ospatu dituzte asteburuan Orexan. Larunbatean haurren jolasak eta herri afaria izan zituzten, eta herenegun bertso saioa izan zuten. L.C.



<<JARRAIDEZAGUN BIDEA EGITEN>>

Sare Herritarrek deituta herritarrek herri ezberdinetatik abiatuta mobilizatu ziren larunbatean. *Etixerako bideagertu* lelopean Tolosako Plaza Zaharrean elkartu ziren Alegia, Lizartza-Txarama, Ibarra edota Anoetatik abiatutako zutabeak. E.M.E.

Amarozko Auzoetxea inauguratu dute

Kultur Astea baliatu dute auzotarrek Auzoetxea herritarrei aurkezteko; maiatzaren 15a bitarteko ekitaldiak antolatu dituzte



Auzoetxea inauguratu zuten igandean, Amarotzen. L.C.

Leyre Carrasco Tolosa

Amarozko auzo elkarteak Kultur Astea antolatu du eta ekitaldiak maiatzaren 15era arte luzatuko dira. Ekitaldiak igandean inauguratu zuten Auzoetxean izango dira. «Inaugurazio ekitaldia aurretik ezin izan dugu egin, tartean pandemiak harrapatu gintuelako eta jendea biltzeko baldintza egokiak ez zirelako», kontatu du Aitziber Malkorra auzotarrek.

Hala ere, denbora luze honetan Auzoetxeak atek zabalik izan ditu, eta bertako espazioak auzotarren eskura egon dira. «Gogoia genuen neurriak kontuan hartu gabe denak lasai etortzeko, eta osasun egoera hobetzen zen heinean, irekiera ofizial bat egin eta elkarrekin egoteko. Gaur iritsi da eguna, eta hori ospatzera gatoz», gaineratu du Malkorrek.

EGITARAUA

Gaur

19:00. Helduentzako ipuin kontaketa.

Maiatzak 11, asteazkena

19:00. Etxebizitza eredua eztabaidagai: alderdi politikoen ordezkariekin eztabaida, auzoan eraiki behar diren etxe berriek sorturiko kezken harira.

Maiatzak 12

19:00. Olio esentzialei buruzko ikastaroa. Lucia Telleriaren eskutik.

Maiatzak 13

19:00. Batukada.

Kultur Astearen barruan askotariko ekitaldiak antolatu dituztela nabarmendu dute; gaur bertan, esaterako, helduei zuzendutako ipuin kontaketa saioa

20:00. Hiden Garden taldearen kontzertua.
22:30. Andoni DJ.

Maiatzak 14

Goizez. Herrikirolak.
Arratsaldez. Haurrentzako eta nerabeentzako altxorren bila.
18:00. Txokolate jatea.

Maiatzak 15

Auzotarren Eguna. 13:00etan auzo bazkaria, Auzoetxean. Bakoitzak bere bazkaria etxetik eraman beharko du. Edaria eta kafea Auzo Elkarteak jarriko ditu. Auzoko dendetan eman behar da izena.

izango dute eta bihar auzoan eraikiko dituzten alokairuko etxebizitzaren harira sortutako kezkei erantzuna emateko eztabaida irekia egingo dute.



Jose Miguel Iturrioz kalea, z/g
Tel: 943 165 301. BEASAIN



gorriti | martínez

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOAK

KIROL EMAITZAK

Aretotutbolak

BIGARREN B MAILA

30. jardunaldia (azkena)

Lauburu Ibarra	4
San Juan	3

Sailekapena

9. Lauburu Ibarra	37p
10. Ibararte	37p
11. Colo Colo Confort	37p
12. Juventud Circulo Catolico	36p
13. Villa de Quel	34p

HIRUGARREN MAILA

31. jardunaldia

Laskorain - Sasikoa Durango	3-4
Elorrioko Busk. - Tolosala	4-0

Sailekapena

1. Afantxo	71p
2. Laskorain	63p
11. Tolosala	37p

Hurrengo jardunaldia

Mondrate (6) - Laskorain (2)

Tolosala (11) - Eskoriatza (5)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

29. jardunaldia

Ilcapo Hondarribia	41
Tolosala CF Eskubaloia	22

Sailekapena

10. Tarazona	28p
11. Tolosala CF Eskubaloia	26p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala Eskubaloia (11)

Asfaltos redondo Solozabal (16)

1. LURRALDE TXAPELKETA

24. jardunaldia

Leizaran Eskubaloiaos	29
Tolosala Eskubaloia	14

Sailekapena

5. Tolosala CF Eskubaloia	30p
---------------------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Tolosala Eskubaloia (5)

Urnieta Quel Abogados (3)

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

29. jardunaldia

Tolosala CF - Eibar 1-2

Hurrengo jardunaldia (azkena)

Urnieta (15) - Tolosala CF (12)

GORENGO MAILA GIZONAK

Igoera fasea, 9. jardunaldia

Tolosala CF - Orioko 1-3

Hurrengo jardunaldia (azkena)

Lagun Onak (2) - Tolosala CF (5)

Iraupen fasea - 1. Multzoa

9. jardunaldia

Axular - Billabona 1-1

Hurrengo jardunaldia (azkena)

Billabona (5) - Mondragon (4)

Iraupen fasea - 3. Multzoa

9. jardunaldia

Zestoa - Danena 1-1

Hurrengo jardunaldia (azkena)

Danena (1) - Urnieta (5)

LEHEN MAILA ERREGIONALA

Igoera fasea, 16. jardunaldia

Mariño - Intxurre 4-1

Saskibaloia

GIZONEZKOEN LEHEN MAILA

Igoera fasea, 20. jardunaldia

Atletico San Sebastian 71

Redline Mekanika TAKE 74

Sailekapena

1. Fundacion Bilbao Basket	9-5
2. Tecnum-Askatuak	9-5
3. Redline Mekanika TAKE	9-5
4. Mondragon Unibertsitatea	7-7

Jokin Altuna eta Erik Jaka sailkatu dira finalerdiak jokatzeko


Altunak Zabaletari nagusitasunez irabazi dio eta Lasoren aurka jokatu du; Jakak Artolari tanto batez irabazi dio eta Ezkurdia izango du aurkari finalera iristeko bidean

Imanol Garcia Landa

Eskualdeko bi ordezkari izango dira buruz buruko txapelketaren finalerdietan. Jokin Altunak Zabaletaren aurka lortu du txartela, 22-5 irabazi ostean. Erik Jaka eta Iñaki Artolaren arteko partida oso borrokatua izan zen, eta azkenean lizartzarrak lortu zuen, tanto baten aldearekin, finalerdietara igarotzea.

Espero baino partida erosoagoa izan zuen Altuna III.ak Zabaletaren aurka. «Partida ez zen gogorra izan, eta ondo sentitu nintzen. Niri komeni zitzaidan irabazi eta paliza handirik ez lortzea, hori lortu genuen eta kontentu horrekin», esan du amezketarrak. Eskuin eskua ondo duela dio, baina ezkerre oraindik ez dagoela osatuta. «Lehengoa 30 pilotakada jo nituen ezkerrekin, urrutitik oso gutxi, eta hori izan zen positiboa. Aste honetan ezin dut entrenatu ezkerrekin, eta fisikoki prestatzen saiatuko naiz». Beste finalerdi batera iristea gaineratu du.

Unai Lasoren aurka du finalerdia Altunak. Gaur jakingo da Laso asteburuan jokatzeko izango ote den. Rezustaren aurka zuen azken partida bertan beherra utzi zuen lesio batengatik, eta gaurko pilota aukeraketan era-



Erik Jaka. J. ARTUTXA

bakiko du finalerdia jokatu duen ala ez. Ezezkoa bada, bere ordezkaria Artola izango da. «Ez dakit Laso nola dagoen. Nik nahi dudana da bera ateratzea, berak merezi duelako», esan du Altunak. «Sekulako pilotaria da, bere kontra irabaztea oso garesti dago, eta espero dut larunbatean bere aurka jokatzeko». Finalerdia Bizkaia frontoian izango da.

JAKA, BERRIRO ONENEN ARTEAN

2020an txapela jantzi ondoren, iazko buruz buruko ezin izan zuen jokatu Jakak. Orain urte inguru perikarditisa izan zuen, eta

buruz buruko jokatzeari uko egin behar izan zion. Finalerdietara iristiaz «oso harro» dagoela esan du lizartzarrak: «Pasa ditudan pasa eta gero, berriz ere onenen artean nago. Urtea kirol arloan gorabeheratsua izan da, eta azken bi hilabete hauetan nire jokoak gora egin duela iruditzen zait».

Igandean Artolari 22-21 irabazi zion, eta fisikoki oso gogorra izan zela dio. «Latz sufritu genuen, baina zorionez partida nire alde erori zen eta oso pozik», esan du Jakak. Artolak kantxan agindu zuenean partidatik ez zela atera gaineratu du lizartzarrak eta bere aukera izan zuenean aprobetxatu egin zuela, batez ere partidaren bukaeran.

Fisikoki paliza hartuta dagoela esateaz gain, eskuak «hala moduz» dituela esan du: «Hobeto izan ditut, okerrago ere bai. Orain astebeteko tarteak dut gortutza eta eskuak ahal dudan ondoen osatzeko, eta igandean batera aitzakiarik gabe aurkeztuko naiz». Bere aurkaria, Ezkurdia, txapelketako azken bi partidak jokatu gabe iritsiko da. «Ni baino atsedeen gehiago izanik egongo da, baina niri azken garaipen honek konfiantza puntu bat eman behar dit». Eibarko Astelena frontoian jokatu du Jaka eta Ezkurdia artekoa.

Hilberriak eta urteurrenak



Juantxo Zubeldia Arteaga

- Goian Bego -



*Bizia lasai nahiz hartu dezun
joan zera bapatean
ospakizun eder baten ostean
denak lasai geunden bitartean.
Nahiz ez egon osasun betean,
zure borondate eta izate ona
geratuko da gure artean
bizi geraden artean.*

Zure ilobak: Beñat, Garazi eta Ruben, Aitzol eta Ane, Endika eta Leire, Ianire eta Arkaitz, Manex eta Uxue, Aitor eta Maialen, Asier eta Maialen, Iloba txikiak: Aitor, Unai, Izaro, Urki, Izar, Oihan eta Enara.

BALIARRAIN, 2022eko maiatzaren 10ean



Jesusa Alberro Ugarte

Josune Zarandona gure lankidearen ama

*Une latz hauetan
bat egiten dugu
Josune eta sendiaren
saminarekin*

GOIBERRIKO
HITZA goiberri

ZUMARRAGAN, 2022ko maiatzaren 10ean.



XIV. URTEURRENA

Amets Aizpurua Agirretxe

*Zure irudia dago
zeruan izarrez
beti zinen bezelaxen
orain ere irribarrez...*

Etxekoak

ZUMAIAN, 2022ko maiatzaren 10an

Lauburu Ibarrak beste urtebetez Bigarren B mailan jarraituko du

Azken jardunaldia jokatu zuen larunbatean, etxean, jendez betea zegoen Belabieta kiroldegian, eta minutu eta erdi falta zela lortu zuen garaipeneko gola San Juanen aurka

Rebeka Calvo Ibarra

Ibarrako Belabieta kiroldegia lepo egon zen larunbat arratsaldean Lauburu eta AD San Juan taldeen arteko partida ikusteko. Partida erabakigarria izan zen; 21-22 denboraldiko azken jardunaldia eta bertan erabaki zen ibartarrek Bigarren B mailan jarraituko dutela.

Lauburuk ireki zuen markagailua bigarren minutuan Chukyren golarekin. Atsedenaldirako minutu bat falta zela berdin zuten nafarrek, baina Chuky segituan sartu zuen bigarren gola. Bigarren zatian Juaristik sartu zuen hirugarren gola eta amaierarako lau minutu falta zirela izan zen berdinketa. Chuky sartu zuen laugarren gola amaierarako minutu bat eta 38 segundo falta zirela.



Lauburu Ibarra taldeko jokariak, zaleei babesa eskertuz. REBEKA CALVO

Laugarren gola sartzerakoan, lehartu egin zen Belabieta, zaleak zutik jarritz. Lauburu Ibarra klubeko zuzendaritza batzordetik eskerrak eman diete zaleei, «denboraldi osoan zehar, berezi-

ki azken jardunaldi honetan, baldintzarik gabe emandako laguntzagatik. Ez gara nekatzen errepikatzen ezinbestekoak zaretela, eta zuek gabe ez litzatekeela berdina izango».

Jokin Tolosak, Segura-Zerain mendi lasterketa motzeko marka

Erredakzioa

Guztira 173 korrikalarik parte hartu dute Segura-Zeraingo bi mendi lasterketetan: 15 kilometrokoan 96 korrikalari (19 neska) eta 25 kilometrokoan 77 (5 neska). Jokin Tolosa anoetarra izan da protagonistetako bat, proba motza irabazteaz gain, marka hobetu baitu. Iñaki Hormaetxeren denbora 14 segundoan hobetu du, eta 1.08.13an ezarri. Lasterketa motzeko bigarren sailkatua Aitor Etxeberria berastegiarrak (1.10.14) izan da eta hirugarrena Mikel Zabalegi ordiziarra (1.10.34).

Emakumezkoetan, Irati Larrañaga usurbildarra izan da garaile (1.26.37), Lara Estebanez legazpiarra (1.27.03) eta Laiane Arrospide tolosarraren (1.28.41) aurretik.

Lasterketa luzean Walther Berra bizkaitarrak (2.17.41), Ibai Madina berrobitarrak (2.22.13) eta Ioseba Eskudero idiazabaldarrak (2.23.08) osatu dute podiuma. Emakumezkoetan, berriz, Oihana Zubillaga anoetarrrak (2.57.21), Janire Lopez zaldibiarrrak (3.13.53) eta Edurne Arakistain legorretarrak (3.20.56) osatu dute podiuma.



Jokin Tolosa, helmugan. LOINAZ AGIRRE

Zubillagak, gainera, Goierriko Kopa eskuratu du.

SARAH UGARTE, IRABAZLE

Perimetral de Arguis mendi lasterketa irabazi du Sarah Ugarte tolosarrak. 30 kilometro eta 2.000 metroko desnibel positiboarekin, hiru ordu eta berrogei minutu behar izan ditu proba amaitzeko. Bigarrenari, Laura Bartari, zazpi minutu atera dizkio. Ugartek sare sozialetan azaldu duenez, «ondo» sentitu da. Alaba jaio zenetik zortzi hilabete pasa direla ekarri du gogora, eta «beti bezala disfrutatzen» duela gaineratu du.

Eneritz Iraola, irabazle Martin Fiz Maratoian

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Eneritz Iraola bidaniarra izan da Gasteizen egindako Martin Fiz Maratoiko irabazlea. Lehen aldiz parte hartu du maratoni batean, eta 3.20.57ko denborarekin irabazi du Iraolak. Bidaniarrak Susana Lopez izan du lagun lasterketa guztian zehar, baita podiumean ere, bigarren egin baitu (3.23.58). Hirugarren markarik onena Lourdes Alonsorentzat izan da, 3.26.40ko denborarekin.



Eneritz Iraola. AITOR EL DUAIEN



GONZALEZ ETA OSA DIRA IRABAZLEAK

Emakumeen IV. Pala Txapelketa Azkarra izan da jokoan, Behar Zana elkarteak antolatuta. Amaia Gonzalez eta Edurne Osa izan dira irabazleak, 16-15 gailenduz Kris Ezkurdia eta Larrantz Etxanizi. Guztira zortzi pilotarik, eta beraz, lau bikotek parte hartu dute txapelketan. Lehia baino txapelketan sortzen den giroa dela garrantzitsuena azaldu dute Behar Zana elkartetik. Txapelketa amaitu ondoren elkarrekin bazkaldu zuten elkarteak. BEHAR ZANA



ASTEARTEA, 2022KO MAIATZAK 10
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 10

AGENDA

Deialdiak

Berastegi. Odol ematea J.A. Muñagorri eskolan, aurrez hitzordua hartuta, 17:00etan.
Anoeta. Tomatearen tailerra Furgobaratza proiektuaren barruan. Baratzeparkean, 18:00etan.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro bikaina. Goizean zerua oskarbi agertuko da eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean zehar goi-hodei batzuk ikusiko ditugu, baina batere trabarik egin gabe eguzkiari. Haizeak hego ukitua izango du eta tenperatura igo egingo da, 25-27 graduan joz goia eguneko erdiko orduetan.

Bihar. Uda sasoiko giroa. Goizean goi-hodei batzuk izanagatik, giro eguzkitsua izango da. Arratsaldean zehar beroaren eraginez bero-hodeiak gartzen joango dira, baina zaila izango da ekaitzak jotzea, giro lasaia jarraipena izango duelarik. Goizean hego-haizea ibiliko da; arratsaldean aldiz, iparraldekoa. Tenperatura igo eta 26-28 graduan joko du goia.

Asier Imaz Bedaio

Zer-nolako zigorrak izaten zenukizuten eskolan?

Txarren-txarrena 16:00etan eskola bukatu eta batzuk etxera eta esaldiak kopiatzea tokatzen ziztzaionari hantxe gelditu behar amaitu arte: «*En la escuela no tengo que hablar vasco*».

Lehenengoan arrebarekin hizketan, bera bost urte gazteagoa da, eta berak ere idatzi behar izan zituela esan zidan. Denak emakumezko maistrak izaten genituen, gizonezkoekin batere ez. Bi eskola izan genituen Bedaion, gaur egun biak itxita daude. Biak umez lepo beteta, garai hartan.

Nondik nora topatu duzu esaldien koaderno orain?

Nik traste zaharrak txiki-txikitik jasotzeko ohitura izan dut. Armairu zahar batean gordeta nuen koaderno hau, denborarekin seguru gehiago topatuko ditudala. Irakurtzen hasi eta galde-tu nuen: «Oraingo umeek zigorrak izaten al dute eskolan?». Orduan, anaiari bidali nion koadernoaren argazkia eta hark udaletxeko zinegotzi bati eta hark Kike Amonarriziri... Hortik gero irratitik deika hasi zitzaizkidan elkarrizketa egiteko, eta hortik... soka. Telebistatik ere deitu didate, baina kamera aurrean ezta pentsatu ere!

Baimena eskatu al zizuten argazkia publikatzeko?

Bai noski, baina soka hau guztia ez nuen espero. Jakin izan banu agian ezezkoa! Ez gaude honetan ohituta. 14 urterekin eskola amaitu eta basora, mando zikin batzuekin, errepiderik gabe... Deserto batean bezala bizi izan ginen. Hori bai, jolaserako lagunak eta izaten genituen, gaur ez dagoena.

Betidanik bedaiotarra?



A.I.

«'Buenos días' eta dena! Ez zen hitz bakararra ere euskaraz eskolan»

LONTXO ZUBELDIA HERRITARRA

«*En la escuela no tengo que hablar vasco*» esaldia mila aldiz kopiatu behar izan zuen Lontxo Zubeldia bedaiotarrak 1966an eskola zigor moduan; orduko Bedaio du gogoan.

Hori da. Eskolan hemen ibilitakoa. Eskoletako bat, gaur egungo elkartea dena, 1961ean eraiki zen eta aurretik beste baserri batean hasi ginen. Gaur egun ikurrina dago hortxe, garai batean bandera nazionala izaten zen. Egunero-egunero txandan-txandan bandera igo egin behar izaten genuen, maistrak aginduta.

Nongoak ziren irakasleak?

Azkenengoa gasteiztarra, gazte samarra zen, 20 bat urte. Aurren-aurreneko Leongoa, denak *castellanak* izaten ziren. Guk dena euskaraz, nola hitz egingo genuen ba hemen! Maistrak goian bizi ziren, eskola gainean. Bandera igotzea eskatzen zigutenean ere tranpa egingo genuen...

Nolakoak ziren zigorrak?

Klasea amaitu ondoren izaten ziren. Klase ordutan izan balira agian penarik ez! Hemen eliza ondoan frontoi txiki bat bazen; batzuk pilotan eta besteak hemen, zigorra idazten.

Zergatik jarri zizuten zigorra?

Euskaraz hitz egiten genuelako eta harrapatu ninduelako euskaraz hitz egiten! Klasean dena gaztelaniaz izaten zen, maistra arbel ondoan jarrita, eta gu biko idazmahaietan eserita.

Askotan esaten al zizuten euskaraz ez egiteko?

Beti! Hasieratik bagenekien. «*Buenos días*» eta dena! Ez zen hitz bakararra ere euskaraz. Debe-katuta. Gaur hemen hitz egin dugunarekin, garai hartan honez-kero guardia zibilen kuartelean egongo nintzateke. Herri txikia baina diktadura bazen.

Ulertzen al zenuten gaztelania?

Dena gaztelaniaz zen, eta guk jakin ez zer esan nahi zuen! Ezta memorizatze ere, diktaketak ere izaten ziren. Ni bost urterekin hasi nintzen eskolan eta gaitz erdi.

AURRE matrikula

Maiatzaren 9tik 27ra

Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

Santa Luzia 17 - Tolosa
943 651 147
www.tolosaldeah.eus

[@tolosaldea](https://www.facebook.com/tolosaldea)
[@tolosaldeah](https://www.instagram.com/tolosaldeah)
[@tolosaldeah](https://www.youtube.com/tolosaldeah)

Fp
BILBO PIRAMANTA
CORREO VASCO

PRESENTZIALKI
Derrigorrezkoa hitzordua hartzea:
www.tolosaldeah.eus
943 651 147

AURREMATRIKULA ONLINE
<https://ikasgunea.euskadi.eus>